




PINTXO & GO



Lander Bikandi, Eñaut Zuberogoitia, Unai Iglesias eta Paul Lacal

AURKIBIDEA:

Gure ideia:	3
1. BALIO PROPOSAMENA:	4
2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA BEZEROAK:	5
3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK	6
4. DIRU-SARRERAK	7
5. KANALAK	8
6. BEZEROEKIKO HARREMANAK:	9
7. BALIABIDEAK:	10
8. BEZEROEKIKO HARREMANAK:	11
9. KOSTUAK	12
10. FUNTSEZKO JARDUERAK:	13

Gure ideia:

Gure ideia, makina saltzaile kate bat sortzea da. Makinak etxean egindako janaria izango du durangoko jatetxe ezberdinek proportzionatuko digutena. Haien pintxoak jarriko ditugu makinetan salgai eta edozein momentutan eros daitezkeen pintxoak dira. Egunero aldatuko dira pintxoak, tabernak salduko dizkigutelako egunero. Gure enpresak beraz bitartekari gisa lan egingo du.

Gure ideia pentsatzerako orduan, zailtasunak izan genituen ez genuelako gure bizitzan ezer faltan somatzen, edo gutxienez ez genuelako berau hobetzeko ideiarik bururatzen. Azkenean, buelta asko eman ondoren, Pintxo & Go ideia bururatu zitzaigun, metodo bikaina izango zitekeena tabernen bitartekari gisa (eta hauei publizitatea eginez) jarduteko. Pintxo & Go ideia asko landu dugu eta gure ustetan errealitatean leku bat sor dakiola uste dugu.

Enpresaren izena erabakitzerako orduan hurrengoak bururatu zitzaigun: PINTXO & GO, izen honekin argi geratzen da zertan datzan gure aktibitatea eta ikasteko eta gogorarazteko erraza da. Gainera etorkizun batean internazionalizatzeko aukera baldin badaukagu, izenak egokia izaten jarraituko luke.

SLOGAN: There's always time for a pintxo

